

BITORIANO GANDIAGA. *Gabon dut anuntzio*. Arantzazu - Oñati, 1986.

Liburu hau baino lehen, egilearen haurtzaroan, Gabonak ziren Orbelauen eta betirako itsatsirik gelditu zitzaizkion sutondoko irudiak. Irudi emankorrek usuario zaharretatik esperantzaren berrikuntzara begira.

Tradizioak, ohiturak,
zeinuak eta fedea,
dena genuen batera bizi,
hori zen gure legea.

Hotza kanpoan eta
su ederra barruan,
han dakusat Orbelau
baso-sailen erdian
sutondo bete pozez.

Pozik anitz ekartzen digute Eguberriz jasotzen ditugun erregalixtoak, baina 1986an jaso ditudanetan pozgarriena B. Gandiaga adiskideak eskuizkribuzko eskaintzaz bidali zidan *Gabon dut anuntzio* deritzan liburua izan da. Txukun aurkeztua. Musika: Pello Zabalak ondua; irudiak: Xabier Egañak pizkarri prestatuak; eta maketa: X. Egaña berak J.A. Adurizen laguntzaz egokitua.

Gizarte tradizioa ez ezik, gure literaturakoa ere jarraitzen du liburu honen gaiak. Bukaeran ikus dezakegunez, duela ehun urte Beovide-co Aita Fr. Crispinek *Asis-co loria* (1885) zeritzan hartan ere erabilia.

Gai honen hasiera, Detxepareren aipamena eta herri literatura alde batera utzirik, Ziburuko Joanes Etxeberriren Noelac (1630) deritzan liburuarekin dator. Hortaz berririk anitz eman dut *Gogoz* eta *Bidez* liburuetan.

Gure literatura bera bezain zahar den gai hau ahortu ezinezko bihurtzen da, beti fresko eta beti berri holako poetaren baitan. Gainera, behartsuaren aldeko itxaropenez Asisko Franziskoaren mezua dakarte olerkiok bere muinean, kontsumoan eroria den gizartea kritikatu eta era berean anaitasuna, maitasuna eta esperantza barreiatuz.

Gabon dut anuntzio
desinteresatu;
Eguberri-poza dut
nahi erregalatu:
Gabon-Eguberrien
berria haizatu,
doan dadin jendea
munduan gozatu.

1983.etik 1985.era *Egan*-en argitaratu genituen *Christmak* sail ederra osatzen dute liburu hortan. Egia bada "hitz atsegin eta beroz, horretara poztuta" bizkortu duela ekintza, aurrerantzean ere mika aldiak ken eta bizkorrazteaz ahaleginduko gara. Ez du axola denbora galdu alde arituko bada ere, bere ekarria antzua ez denez gero.

Otsalar

XABIER GEREÑO. *Kikili ETA Kokolo Chile-n*. Umorezko nobela. Argitaratzailea: Xabier Gereño. Bilbo, 1988.

Edozein idazlek aitortuko du oso zaila dela umorezko nobela bat idaztea, ez dela batere erraza historia interesgarri bat asmatu eta irakurlea irribarrezka ipini. Horregatik hain eskasak dira, beste jenero batzuekin gonbaratuz, umorezko nobelak, euskaraz zein edozein hizkuntzarako liburugintzan.

Orain bost urte dela Xabier Gereño-k *Antonello Euskal Herrian* idatzi zuen, bere lehen umorezko nobela, eta ezin ukatu arrakasta izan zuela hartatik sei edizio egin direla kontutan badugu. Kontutan hartu etzutenak gu izan ginen "Euskal umorea" agertzean (*Egan* 1-2, 1987) aipamenik ez egiteaz.

Oraingo hau, *Kiliki eta Koloko Chile-n*, urrats beretik dator, umore eta kezka elkar lotuz. Historian zehar situazio tentsoak sortzen dira, eraberean dibertigarriak direnak. Pertsonaiek, egoera larrietan irtenbide dramatikoak bilatu beharrean barregarriak aukeratzen dituzte. Liburuaren helburua, irakurleari narrazio interesgarri bat eskaintzea izan da, baina irribarrez irakurriko duena.

Eta beste puntu hau ere azpimarratzekoa da; adin eta era guztieta-